

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IEKORAKO UDALA

Langile lan kontratudun finkoen behin betiko izendapena argitaratzea

Alkatearen dekretua, zeinaren bidez onesten baita behin betiko langile lan kontratudun finkoa izendatzea lekorako Udaleko administrari laguntzaile lanpostuan, 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarrien ondoriozko iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko deialdiaren prozesuan.

Aztertu da.- Iraupen luzeko enplegua egonkortzeko espedientea, lehiaketa sistemaren bidez lekorako Udaleko administrari laguntzaile lanpostuan sartzeko izapidetua, zeinaren oinarriak 2022ko abenduaren 22ko 147. zenbakiko ALHAOn argitaratu baitziren.

Aztertu da.- Alkatearen 149/2024 Ebazpena, zeinaren bidez Ana Gómez Iradier (NANA: 16.***55-Q) praktiketako langile lan kontratudun finko izendatu baitzen, hiru hilabeterako, lekorako Udaleko administrari laguntzaile lanpostua betetzeko, deialdiaren oinarrietako 15. artikulua araberara. Ebazpena 2024ko abenduaren 13ko ALHAOn argitaratu zen, 141. zenbakian.

Interesdunak deialdiko 13. oinarri orokorrean eskatutako dokumentazioa aurkeztu zuen horretarako ezarritako epean.

15. eta 16. oinarri orokorrek ezartzen dutenez, epaimahai kalifikatzaileak proposamena egin ondoren, hautagaia langile lan kontratudun izendatu behar da probaldian, eta aldi horren iraupena 15.2 oinarri orokorrek ezartzen du, eta hiru hilabetekoa izango da C talderako.

Aztertu da.- 155/2024 Ebazpena, abenduaren 10ekoa, lekorako Udalaren praktikaldi/probal-diari buruzko instrukzioa onesten duena.

Aztertu da.- Instrukzioaren 5. artikulua babesean, praktikak baliozkotzeko prozedura ofizioz hasi zen, eta izangaia baliozkotzeko proposamena egiteko eskatu zitzaion epaimahaiari.

Praktiketako tutorearen baliozkotzearen aldeko txostena, 2024ko abenduaren 10ekoa.

Epaimahai kalifikatzaileak 2024ko abenduaren 11n baliozkotzea onetsi zuen eta Ana Gómez Iradier administrari laguntzaile izendatzea onetsi zuen.

Bat etorri abenduaren 28ko 20/2021 Legearen 6. eta 8. xedapen gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesua arautzen duen 14. oinarri orokorrekin (2022ko abenduaren 22ko ALHAO, 147. zk.).

Aurretik adierazitakoarekin bat etorri, eta indarreko legeriak eta, zehazki, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (TAOL) 21.1.h) eta 102.2 artikuluek, Toki Araubidearen arloan indarrean diren legezko xedapenen testu bategina onesten duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren (TATB) 136. artikulua (2024-196 2024/11/15) eta Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legeak ematen dizkidaten eskumenak baliatuz.

Alkate honek, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikulua h) apartatua oinarrituta, honako hau,

EBAZTEN DU

LEHENENGOA.- ANA GÓMEZ IRADIER (NANA:16.***55-Q) langile lan kontratudun finko izendatzea, lekorako Udaleko administrari laguntzaile lanpostuan.

Lanaldia: ehuneko 50.

BIGARRENA.- Ebazpen hau izendatutako izangaiari jakinaraztea eta lan kontratudun langile finko gisa dagokion lan kontratua sinatzeko eskatzea. Kontratua hilabeteko epean sinatu behar da, ebazpen hau jakinarazi ondorengo egunetik kontatzen hasita.

HIRUGARRENA.- Ebazpen honen edukia argitara ematea abenduaren 28ko 20/2021 Legearen (2022ko abenduaren 22ko ALHAO, 147. zk.) 6. eta 8. xedapen gehigarritik eratorritako aldi baterako enplegua egonkortzeko hautaketa prozesua arautzen duen 5. oinarri orokorrean adierazitako lekuetan.

LAUGARRENA.- Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo ohiko bilkuran.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke udal honetako alkateari, hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluekin bat etorritik, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzietarako Gasteizko epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua xedatutakoarekin bat etorritik.

Aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztea erabakiz gero, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu, harik eta berraztertze errekurtsoa berariaz ebatzi edo isilbidez ezetsi arte.

Nolanahi ere, komenigarriago jotzen den beste edozein errekurtso aurkez daiteke.

lekora, 2024ko abenduaren 16a

Alkatea

ALFREDO ARGUIJO ECHAZARRETA